


# PAPEREZKO HEGAZKINAK



## EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA. ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK.

**El mundo, nuestra familia. Etxean bezala, makalenak lehenak** goiburua aukeratu da aurtengo ekitaldirako. Honen bitartez, zera gogoratu nahi da: gure mundu honek desberdintasuna, atsekabea, sufrimendua... eragiten dituela eta, askotan, familia dela euskarria, laguntzailea, zailtasunez jantzitako egoera hauetan. Goiburuak etxekotasuna hedatzeko diosku, mundu zuzen eta anaikorragoa eraikitzeko, giza familia handia eratzeko eta familia handi bezala bizitzeko. Era berean, familiari senidetasun eta elkartasunaren, gizarte konpromisoaren eskola bezala dagokion balioa aitortzeko.

**IKUSIZ IKASI**  
X SEMANA DE CINE ESPIRITUAL

# EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA

## ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK

2017.KO MARTXOAREN 25ETIK ETA 31ERA • DEL 25 AL 31 DE MARZO DEL 2017



|                   |   |   |   |
|-------------------|---|---|---|
| Sesi3n<br>abi3rta | Sesi3n<br>escolar                                       | Sesi3n<br>escolar y<br>Gesto<br>Diocesano               | Sesi3n<br>escolar y<br>Gesto<br>Diocesano |
| 25 marzo          | 27 al 30 marzo  | 27 al 30 marzo  | 31 marzo                                  |
| La familia Belier | Little boy<br>Aviones de papel (E)<br>La familia Belier | Little boy<br>Aviones de papel (E)<br>La familia Belier | Little boy<br>Ghadi<br>La familia Belier  |

ANTOLATZAILA • ORGANIZAZI3N:

**Bilboko Elizbarrutia**  
DIOCESIS DE BILBAO



PATROZINA • BARRUTIA:

**Ibaizabal**  
ASOCIACI3N

[HTTP://IKUSIZIKASI.BIZKELIZA.ORG](http://ikusizikasi.bizkelizea.org)

PAPEREZKO HEGAZKINAK

Pelikula: Paperezko Hegazkinak

Zuzendaria: Robert Connolly

Herraldea: Australia

Urtea: 2014

Iraupena: 96min.

Generoa: Drama.

Gidoia: Robert Connolly, Steve Worland

Aktoreen zerrenda: Sam Worthington, Ed Oxenbould, Deborah Mailman, Nicholas Bakopulos-Cooke, Ena Imai, Terry Norris, Peter Rowsthorn, Julian Dennison, David Wenham, Shane Adamczak, Fiona Blakely, Commander Bo.

**SINOPSISIA:** Dylan mutikoa Australian bizi da bere aitarekin. Bizitza aldatu egingo zaio Japonian ospatuko den paperezko hegazkinen Munduko Txapelketan parte hartzeko ametsa betetzen denean. (FILMAFFINITY).

**BALORAZIOA:** Pelikula hau, egokia da bigarren hezkuntzakoentzat.

## **Pelikulan barneratuz:**

Lehen hiru ariketetan, saioa dagokion testuinguruan kokatuko dugu, ikasleek "Paperezko hegazkinak" pelikulaz gogoratzen dutena batera jarriz eta pelikularen argumentu nagusiaz jabetu diren ikusiz (batez ere, ikasleak berak egingo duen laburpenaren bitartez). Beste alde batetik, hirugarren ariketan, pertsonaiengana hurbiltzen saiatuko gara, beraien lekua hartuz eta bizi duten egoeran erakusten dituzten motibazio eta jarrerak antzemanaz.

Hona hemen pelikulan agertzen diren gaiak:

- Iraunkortasuna erronkari aurre egiteko, lortzeko, ahalegina, etengabeko bilaketa...
- Egiten dugun guztian edertasuna bilatu edo aurkitu.
- Elkarrenganako laguntza familiar egoera zailetan:
  - Semeak aitari laguntzen dio depresiotik ateratzen
  - Aitonaren irudia
- Adiskidetasuna:
  - Baldintzarik gabeko estimu eta babesa: hartu-emana adiskidearekin, neskato japoniar irabazlearekin.
  - Errebantxa eta mendekurik ez, barkamena, aldaketa pertsonala: golfeko txapeldunaren semearekiko harremana.
  - Bere aldetik ikasleari laguntza ematen dion irakaslea.

### **1- Fitxa teknikoa**

*Hasteko, pelikularen "nortasun agiriaren" datu batzuk jasoko ditugu. Nok, noiz, non egin duen:*

Jatorrizko titulua: Paper Planes  
 Zuzendaria: Robert Connolly  
 Herrialdea: Australia  
 Urtea: 2014

### *2- Idatzi 5-7 lerrotan pelikularen laburpena*

*3- Pertsonaien inguruan pentsatu. Idatzi nolakoak diren eta zer eskaintzen diguten:*

- Dylan
- Jack Dylanen aita
- Aitona
- Kevin Dylanen adiskidea

- Kimi
- Jason

### **Pertsonaiek agertzen dituzten balioak:**

Hauxe da pelikularen alderdirik aberatsenetakoa. Laugarren ariketa egokia izan daiteke, besteak beste, ikasleek zein balio ikusi duten argiago, zein gertatu zaien deigarrien, protagonistengan zein baloratu duten gehien... antzemateko. Bosgarren ariketa, bestalde, aproposa izan daiteke zehazteko: balioak jarreretan adierazten direla konturatu eta jarrerak norbere buruarekin, besteekin eta inguruarekin jokatzeko eran. Ondorengoak batera jar ditzatela taldean: nabarmendutako bost balioei esker noiz ohartzen garen eszena garrantzitsuez; xehetasunak gehitu; istorioan zehar pertsonaien jarrerek izan duten bilakaera aipatu...

*4- Balioak, hainbat egoeraren aurrean zuzen eta arduraz jokatzeko laguntzen diguten gidatzat hartzen baditugu, 'Paperezko hegazkinak' pelikulak zein balio transmititzen digun aztertuko dugu. Aipatu hiru eta azaldu beraien esanahia.*

*5- Japonian ospatzen den paperezko hegazkinen munduko txapelketan parte hartzea da Dylanen ametsa. Lanez, fedez, irmotasunez, kiroltasunez eta izadiarenganako estimuz lortuko du berak. Definitu bost balio hauek eta adibideren baten bitartez, zure bizitzan non eta noiz agertzen diren adierazi.*

#### **Lana**

Definizioa:

Adibidea:

#### **Fedea**

Definizioa:

Adibidea:

#### **Irmotasuna**

Definizioa:

Adibidea:

#### **Kiroltasuna**

Definizioa:

Adibidea:

#### **Izadiarenganako estimua**

Definizioa:

Adibidea:

### **Familia, gizarterantz gaindi egiten duen maitasun eta elkartasunezko elkartea**

Hauxe da aurtengo 'ikusiz ikasi' zine astearen ardatza: familiaren balio ordezkazekin jabetu, bera baita pertsona bezala, maitasun, segurtasun, elkarrenganako sostengu, elkartasun zehatz, baldintzarik gabeko harrerazko testuinguruan, hazten eta garatzek laguntzen diguna. Eta horrexegatik, hain zuzen, elkartasunaren lehen eskola izanik, gizarteari jokaera jakin batzuk irakasteko duen ahalmena baloratu, giza senidetasunaren oinarria familian bizi izandako hartu-emanak direlako.

Seigarren ariketari ekin aurretik, dagokion sarrera irakurri eta labur-labur komentatu, Dylan familiak lehen aipaturiko alderdietako batzuk noiz erakusten dituen nabarmentzeko. Ariketa honen bitartez, zera lortu beharko genuke: familia eremu egokitzen hartu kideen arteko harremanetarako, ingururako, gizarterako... enpatia, eskuzabaltasuna, kontzientzia zibikoa... etxeko bizipenetatik, jarduera zehatzetatik sortzen direla azpimarratuz eta delako bizipen eta ekintza horiek erakusten eta irakasten digutela ikusiz.

Zazpigarren ariketan, Frantzisko Aita Santuak familiari buruz dituen ideiak aurkituko ditugu. Bere esanetan, familian besteengana irekita dauden pertsonak hazi eta hezi egiten dira. Ez da kasualitatea, gizadiak senidetasuna, familia barruko harreman nagusia, lagun arteko eta taldeko harremanen erreferentzia eta idealtzat hartu izana. Gauza bera esan daiteke "giza familia" kontzeptuaz, familiaren eremuko ikuspuntua gizarte eta mundura eroan izan delako, gizon eta emakume guztien arteko adiskidetasuna eta elkar ulertzea lortzeko ahaleginen suspertzaile bezala (Giza Eskubideen Adierazpenetik hasita).

#### *6- Familia*

- *Familiako kideek une zailetan elkarri laguntzen eta eusten diotela ikusi dugu pelikulan: samintasunez beteriko mundutik ateratzen laguntzen dio Dylanek aitari; aitonak -bere erara bada ere- badaki non egon familiak bere beharra duenean. Horren haritik, bakarka, aipatu familiari buruzko ondorengo esaldietatik zeintzuk diren, zuon ustez, **egiazkoak** eta zeintzuk **gezurrezkoak** eta azaldu zergatik.*
  - Familiak eguneroko lanean laguntzen dit
  - Familiak gaizki egiten dudana zuzentzen du bakarrik
  - Familia guztiak berdina dira
  - Familia garrantzitsua da nire garapen pertsonalean
  - Familiak nire familiakoak ez diren beste batzuek arduratzera narama
- *Hausnarketa honen ostean, pertsona hobea izaten eta besteen alde konprometitzen dizutela-eta, zure familiaz nabarmenduko zenituzkeen hiru ideia nabarmendu.*

*7- Frantzisko Aita Santuak familiari buruz esan dituen esaldi batzuk irakurri eta komentatu egingo ditugu.*

1. "Elkartasunean heztea, beraz, gizatasunean hezte da. Familiari lagundu eta familia babestu elkartasun eta errespetuan hezi dezan, horixe da, hain zuzen, urrats erabakigarria gizarte zuzen eta gizatiarragorantz jotzeko.
2. Familia senidetasunaren iturria da eta, horregatik, bakerako oinarria eta bide nagusia, bokazioz, bere maitasunaz kutsatu beharko lukelako mundua"